

Zapatismoaren ekarpen ideologikoa

Naroa Argoitia
Politika Zientzietan lizentziatua

Azken bolada honetan eta zenbait gertakariren ondorioz, mugimendu zapatistak izan du oihartzunik gure artean. Bereizgarri asko dituen aktibismoa dugu zapatismoa eta ekarpen asko egin dizkie beste mugimenduei, indigenei zein mundu mailakoei. Horrela, bada, eurek argi uzten duten arren zapatismoa ezin dela definitu, etiketatu, besteak beste momentuan momentuko erabakiek eta, beraz, esperientziak egiten duelako, hurrengo lerroetan mugimendu horren nondik norakoak eta ulermenerako gakoak azalduko dira.

Recently, and due to various altercations, the Zapatista movement has had many repercussions amongst us. Zapatism is a very unique form of activism in lots of senses and it has contributed greatly to other movements, both indigenous and those coming from the rest of the world. Likewise, although they make it very clear that Zapatism cannot be defined, nor categorised...precisely for being a movement in which the decisions made at each moment are the important ones and therefore experience is the key, through this work the coordinates and the pillars of this movement will be explained for a better understanding

Sarrera

Lan honetan, lehenengo eta behin, historian atzera joango naiz, baina soilik gainbegiratzeko zapatismoaren altxamendu ofiziala gertatu zen 1994tik gaurdaino. Garrantzitsu deritzot euren ibilbidearen puntu garrantzitsuenei so egiteari, euren izatea ulertzeko lagungarria delakoan.

Eta bigarrenik, zapatismoak berak dituen berritasun eta ezaugarri ideologikoak landuko ditut. Askok postmodernista definitu dute borroka hau. Modernismoak eskaintzen dituen egia orokorren aurka, bizimodu onaren pertzepzio bakarraren aurka, postmodernismoak zalantzak adieraztera eta guztia dudan jartzera gonbidatzen gaitu. Subjektibotasunak lekua hartzen du objektibotasun eta egia orokorren aurka, eta bide horretan kokatu dute zapatismoa gai hau landu duten autore gehienek, «egia eta surik gabeko armada bat gara» adierazpenak erakutsi digun bezala. Izan ere, zapatismoak ez du bide bat eskaintzen, ideologia bat era hertsian ulertuz gero. Horretaz, lanean zehar zapatismoaren ezaugarriak aztertu ahala, jabetuko gara.

Zapatismo berriaren bilakaera historikoa

1982an Mexiko krisi sakon batean sartu zen. Kanpo Zorra handitzen zihoan etengabe, interes-tasen gorakadaren ondorioz, eta azkenik, urte hartan goia jo zuen eta zorra ordaintzeko ezintasuna azaldu zuten; irabaziak gainditzen zituzten zorrak. Ondorioz, NDFtik zein Munduko Bankutik zenbait arau ezarri zitzaizkien zorrari bide emateko, hala nola atzerriko inbertsioei ateak irekitzea era masiboan, pribatizazio-politikak eta babes historikoak ezabatzea. Landa-eremuen erreforma bukatu zen eta jabetza sozialeko hainbat eta hainbat lur esku partikularretara pasatu ziren. Horrela eskulanaren esplotazioa ugaritu egin zen. Hori gutxi balitz, ordena soziala mantentzeko armatze izugarria gertatu zen estatu-aparatuaren aldetik.

Chiapasi dagokionez, Mexikoko estatu marjinetuenetako bat da. Nahiz eta oso aberatsa izan ondasunei dagokionez (Mexikoko energia hidroelektrikoaren % 50, bigarren petrolio-ekoizle garrantzitsuena, lehen kafe-esportatzailea...), marginalizazio- eta probezia-tasa altuenetakoak ere bertan kontzentratzen dira (3/4 nutrizio txarra, %19 sarrera ekonomiko gabea, % 39 minimotik beherako sarrera ekonomikoekin...).

Egoera horretan, 1994ko urtarrilaren 1ean zapatisten altxamendua gertatu zen. Altxamendua urte horretan izan zen arren, 1983 ingurutik jada antolatu eta formatzeko ari ziren. Kazike korruptoen aurkako ekintza txikiak egiten zituzten eta gobernuarekin lurzoruen eskubideen inguruko gatazkak izaten zituzten. Horien artean *La Brechakoa* aipa genezake, non giza barrerak egin ziren komunitateak ez botatzeko. Etnia guztien artean fronte bakar bat osatzearen beharra gero eta garbiago zegoen eta eskarien artean zuhaitz-mozketa gelditzea, petrolioaren ateratzearen inguruak, indigenen eskubideei lotuak (batez ere lur-zoruen kooperatibizazioaren inguruan) eta PRRen plan sozioekonomikoaren aldaketa ziren nagusiak.

Altxatu zirenean, hainbat gune eskuratzea izan zen lehen pausoa; San Cristobal de las Casas bera, inguruko eskualde batzuk, kartzela hutsak, egoitza ofizial pare bat, herriko zentroak eta irrati-estazioa hartu zituzten besteak beste. Une horretan, San Cristobalگو balkoi nagusira altxatu eta mezu hau bota zuten:

Gaur NAFTAren (North American Free Trade Agreement) hasiera dugu. Etnia indigenen heriotza besterik ez dena, Salinas de Gortari-ren modernizazio-programen ezinbesteko direnak. Horregatik altxatu gara gaurko egunez, heriotzaren deiari erantzuteko, NAFTAri, eta bizitzaren deia eramateko armekin altxatu gara demokrazia eta askatasunaren izenean, soluzioak emanez gure arazoei.

Horrez gain, Mexikoko Konstituzioaren 39. artikuluari eutsi zioten, euren legiti-motasuna eta legaltasuna adierazteko. Besteak beste, artikulua horren baitan, herriaren nahia betetzen ez duten gobernuen aurka altxatzeko herriak duen eskubideaz mintzo da.

Gobernuaren erantzuna errepresioa izan zen. Gerra zikina EZLNren (Askapen Nazionaleko Armada Zapatista) aurka jarraipen, kontrol, atake eta abarrekin eta lerro militarra komunitateen inguruan, bonbardaketekin askotan. Horrek oihanera itzultzera behartu zituen.

1994an bertan, hauteskundeak egon ziren Mexikon. Zapatistek boikotaren bidea hartu zuten, paramilitarizazio handiari, ustelkeriari... erantzun nahiez. Hauteskun-deetan PRI (Alderdi Iraultzaile Institutuzionala) irten zen garaile, Ernesto Zedillo presidente berria izan zen eta Chiapasen ere PRI alderdia jarri zen, begi-bistako iruzurraren ondorioz. Horrela hauteskundeen aurreko konfiantza eza agerian jarri zuten.

Gobernuarekin izandako lehen bilerari dagokionez, *Aguas Calientes*en izan zen eta zapatistek gizarte zibila deitu zuten eztabaidarako. Handik ez zen akordio garbirik atera. Negoziaziorako puntuak hauteskunde justuak eta eskubide zibilen babesa ziren.

Lehen altxamenduaren ondorengo hilabeteetan, komunitateko zein nazioarteko hainbat talderekin egon ondoren, jendeak bakea eta armak ez erabiltzea eskatzen zuela ikusirik, hitzaren aldeko hautua egin zuten. Harrezkero armatuta mantendu diren arren, gizarte zibilaren borrokari bide eman diote eta berorren arrakastaren aurrean armak alde batera uzteko promes egin dute. Armen jabetzari begira, armak partaideenak dira eta ez EZLNrenak, horrela, bada, euren iritziz desarma ezi izango da gauzatu, armak ez baitira kanpotik emanak, baizik eta kide bakoitzak bere ondasunen truke erosiak dira.

Bigarrenik, *San Andreseko akordioa* etorri zen, eskubide eta kultura indigenaren aldekoa. Izan ere, loka-puntuan edo itopuntuan aurkitzen ziren, non EZLN-koak ezin ziren armekin altxatu, tropen aurrean gutxiengo zirelako, eta gobernuak ezin zuen zuzenengan eraso, genozidio bat egiteko arriskua zegoelako. Horrela, gobernuak akordioa sinatu zuen, baina nazio-gobernuaren errefusatzea dela eta, bertan behera gelditu zen.

1996an, Lacandona oihaneko IV. adierazpenean, EZLNko zapatistek beraien esku politiko eta publikoa izango zen FZLN (Askapen Nazionaleko Fronte Zapatista)

izeneko erakundea sortu zuten. Horrek izaera politiko, baketsu eta zibila izango zuen, boterea bilatzeko xederik gabea eta politika egiteko modu berri baten bilatzailea. Garai hartan gudaren amaiera gertu zegoela uste zuten EZLNko kideek eta FZLN erakundeak irekitako bide politikoari jarraitu ahal izango ziotela uste zuten.

Geroztik, hainbat topaketatan biltzen, eta batez ere komunikate askeen eraikuntzan aritu dira. *Caracol* izeneko erresistentzia-guneei begira eta *Gobernu ona*, eskolak, eritetxeak eta abar eraikitzen. Barne-antolaketa.

2005ean, *Beste kanpainarekin* bide berri bat irekitzen zela ikusirik, FZLN sortu zuen EZLNk desagertzeko eskatu zion, EZLN bera askatasunez egon zedin beste erakunde bat sortzeko. VI. deklarazioko bide berri hau bere gain hartuz. Horrela, FZLN-n bozketa egin eta disolbatu egin ziren. Zapatismo zibilak etapa berria du orain aurrean, non erakunde politiko, zibil, baketsua izan eta politika egiteko modu berriak edukitzeaz gain, antikapitalista eta ezkertiarra ere izango den.

Gauzak horrela, EZLNk komunitate indigenak babesteko funtzioari eutsi zion eta paraleloki jendarte zibilean fronte indartsu bat sortzeko estrategia politikoari ekin, Mexikon *Beste kanpaina* izenaz ezaguna.

Kanpaina horretan, EZLNko hainbat partaidek lan politiko ireki, baketsu eta zibil bat burutu dute bakea, berdintasuna eta justizia ezartzeko borroka zapatistaren aro berri bat zabalduz. Hauteskunde-giroan sarturik (presidentzialak, Errepublikako Kongresukoak, zein Chiapasko Estatuko gobernuko burua hautatzekoak) 2006ko urtarrilaren batetik zapatistek proposatu eta bultzatutako *Beste kanpaina* abiarazi zen Mexiko guztiko eragile sozial, politiko eta kulturelekin. Lacandona oihaneko VI. deklarazioan oinarritutako dinamika hori jauzi kualitatibo garrantzitsua izan da zapatismoaren estrategian. Izan ere, praktika zapatista mugatua (eskualde eta herri batzuetan garatzeaz gain, jatorrizko herrien problematikari aurre egiten baitzion soilik) izatetik, errepublika osoko sektore zapaldu guztien artikulazioaren proposameneraino joan da. Horrela, zapatismoak Mexiko guztian zehar pizten ari ziren gatazkei izendatzaile komuna eman nahi izan die eta guztiak euritako edo txapel berarenpean bildu.

Beste kanpainaren bertutea, hortaz, etsai komunaren aurrean Mexikoko disidentzia elkartzea izan da, helburu orokor batzuk adostuta. Jasan duten errepresioa ere ezin esan txikia izan denik. Besteak beste, San Salvador Atenco herrixkan jazotakoa aipa genezake.

Beste kanpaina, ordea, ez da hauteskundearen eta instituzioen ustelkeria eta izaera zapaltzailearen salaketarekin konformatu. Izan ere, borroka-izar duen *politika egiteko beste era* hori praktikara eraman eta tokian tokiko ereduak sortu eta herrialde osora proiektatzeko duen bokazio horretatik, arlo eta esparru asko aktibatu eta martxan jartzea lortu dute. *Beste komunikabideak*, *Beste osasuna*, *Beste musika...* etab.

Hori hala izanik ere, eta Mexikoko herri-mugimenduen suspertzaile eta artikulatzailea izateagatik egun bizi den egoera leherkarian jokatu duen papera ukatu gabe, mexikarrentzat aski ezaguna den beste fenomeno batekin talka egin duela baieztatu daiteke. Hain justu, *Beste kanpainan* salatzen zuen sistemaren ustelkeriaren

adierazgarri nagusiarekin egin du topo, hauteskunderen iruzurrarekin. Baina oraingoan, hautesle mexikarren pazientzia agorturik, egoerak eztanda egin du eta kaltetua suertatu den hautagaiak herritarren haserrea kanalizatzen jakin du, baita berau bozkatu ez eta sistemarekin nazkatuta daudenen haserrea ere.

Esan beharra dago, *Beste kanpainak* etsai gorrotagarria zuela, bere planteamenduari kalte egin diezaiokiena: bozka eraginkorra (*'voto útil'*). Eta hala izan zen. Eskuma (PAN) boterean jarraitzearen beldur zen herritar xume askok, alternantziarako alternatiba bakar gisa aurkezten zen "ezkerreko" PRDri bozka eman zion. Horrela, *Beste kanpainaren* aldekoek ere hauteslekuetara jo zuten uztailaren 2 hartan.

Azkenean, fraudeari erantzuteko antolatutako masa-mobilizazioek alde batetik, eta PRDko "presidente legitimoaren" planteamenduen erradikalizazioak bestetik, zapatistek bultzaturiko ekimena oharkabean igarotzea eragin dutela esan daiteke. Baina ez dezagun ahaz, dinamika horrek bere fruituak eman dituela eta ematen jarraituko duela, herri-mugimenduen artikulazioan garrantzi berezia duen heinean. Oaxacako adibidea dugu, besteak beste. Hauteskunde-iruzurraren kontuak, kontrabotereari bide eman baitio APPO (Asamblea Popular del Pueblo de Oaxaca) delakoarekin.

Aspalditik sektore zapalduen artean, bakoitza bere aldetik borrokan ari bazen ere, inkomunikazioa, bateraezintasuna eta elkar ezin ikustea ziren nagusi. Ekimen horrek erakutsi du borroka ezberdinek komunean dituzten fronteak bateragarriak direla eta elkaturik indartsuago eta tinkoago erantzun diezaioketela boterearen gehiegikeriari. Gainera, herri-boterearen eraikuntza, herriarengandik eratorri beharrekoa, denen artean adostu beharreko prozesua izan behar dela agerian geratu da, sektore guztien parte-hartzearekin, alegia.

Horiexek ditugu, beraz, azken gertakizunak eta zapatisten epe berriaren hasiera era berean.

Zapatismoaren ideologiaren barrena

«Hasteko eskatuko nizueke ez nahasteko erresistentzia eta oposizio politikoa. Oposizioak ez dio oposiziorik egiten botereari, baizik eta gobernuari, eta erresistentzia, aldiz, ezin da alderdi bat izan definizioz, ez baitago egina gobernura begira, boterearen markura... baizik eta erresistitzera».

Tomas Segovia

Boterea

Zapatistek botere forma guztiak ukatzen dituzte; estatu-botere forma eta *status quotik* hasi eta botere-maila instituzional txikiagoetara iritsi arte.

Neoliberalismoari kritika sakonak egiten dizkiote, heriotzaren ekonomia-sistematzat izendatuz. Ezkerreko ideologiatzat sailkatzeko puntu guztiak jartzen dituzte mahai gainean, sistema neoliberalari egiten dizkioten kritikak argiak direlarik. Horrela, mundu mailako esturturen desoreka eta botere-banaketa ez-orekatua behin eta berriz izango dute hizpide.

Bestalde, Mexikoko estatuaren inguruko kritikak ere ez dira motz geratzen. Estatu horretatik marjinatuta eta euren eskubideen zapaltzailatzat jotzen dute (sistema kapitalista bezala). Askok diotenez, hori demostratzeko asmoz hartu zuten zapatista izena, hots, alde batetik, Mexikoko iraultza haren jarraitzaile bezala (betiere ezberdintasunak berdintasunak baino gehiago izanik), denbora eta bilakaerak ulertzeko duten moduari jarraiki, eta, bestalde, jendeari gogorarazteko estatu-aparatu eta teknokraziek paper anti-iraultzailea jokutzen dutela.

Bide horri jarraituz, uler daiteke ai hauteskundeetan eta instituzioetan parte-hartzeari boikota egin izana, baita gobernu-laguntza zein zerbitzuei ere uko egin izana. Lehengoari dagokionez, Mexikoko demokraziak izan duen bilakaerak ere eragin zuzena du. Hau da, diktadura perfektorena. Disidentzien aurka gerra zikina egin ostean: presioa, jarraipenak, heriotzak... bere horretan jarraitzen zuten taldeak erostea errekurtsu oso erabilia izan da Mexikoko estatuaren aldetik. Horrela mesede-truke edo diru-truke erositako talde iraultzaile zein indigena ez-konformistak asko izanik historian zehar, zapatistek uko egin diote gobernu-laguntza eta zerbitzuak jasotzeari, baita instituzioetan parte-hartzeari, boterearen kontrako jarrera dutelako. «Dena denontzat, ezer ez guretzat» leloa hori adieraztera dator, hots, borrokatzen dutela dena denontzat izan dadin eta hortik ez dutela irabazi propiorik atera nahi. Era berean, sindikatu eta gobernuen jokabidea salatu nahian azaltzen da lelo hori.

Bestalde, botereak bere burua legalitatez janzten duela diote, eta horrela edozer egiteko eskubidea ezartzen du, baita legeak ez betetzea ere. Dikotomia hau eskaintzen digutela ere gaineratzen dute: ni edo faxismoa, ni edo kaosa, ni edo desordena... errepresioa eta zapalkuntza zoritzeko argudioei atxikiz.

Hala ere zapatistek beharrezkotzat jotzen dute euren integrazioa nazioan. «Ez berriro Mexikorik gu gabe» aldarrian esaterako, argi ikus daiteke. Horrez gain, integrazionistak dira ere beste zentzu honetan: etnia guztiek osatzen dutela eta ez diotela aterik ixten inori. Ez zen berdina gertatu Guatemalan, ez Andeetako iraultzan, ez El Salvadorren...

Botere-harremanekin jarraituz, argi uzten digute haiena ez dela botere-borroka bat, boterearen kontrakoa baizik. Hots, ez dute boterea eskuratu nahi, gero egin behar diren aldaketak egiteko. Diotenez, botere-borrokak boteretsuen metodo berdinak erabiltzera eramaten zaitu. Boterea, hemen, botere forma ofizialtzat edo aginte forma autoritariotzat jotzen da. Eta botere forma guztiei uko egiten dietela aipatzean, zentzu horretan ulertu beharko genuke, ezinezkoa baita indarra edo ahalmena eman dezakeen guztiari uko egitea. Adibidez, hobeto ulertzeko, zapatistek eurek ere boterea dutela esan dezakegu, boterea zentzu zabalean ulertuta. Indarra, jendea mugiarazteko, eskakizunak egiteko, eta abar.

Azken puntu horrek hainbat berritasun ekarri dizkie ezkerretik bultzaturiko iraultzei. Alde batetik diote iraultzak ezin duela izan jarraitzeko eredurik. Hots, unean uneko egoerak eskatuta eta eguneroko lanaz, konpromiso ezberdinetako jende ezberdinak egina, antolakunde ezberdinetatik eta helburu diferentetz egina izango dela iraultza ekarriko duena. Euren borroka ere marko berean kokatzen dute, eta arbuatzen dituzte esportatu edo beste gunetan berdin egin nahi dutenak. Leku

bakoitzean jartzen dute arreta, lokalismoan eta bertako ezaugarrietan, mundu-aldaketan sinisteko. Euren bideari jarraitu nahi diotenei eredutzat ez hartzeko gomendatzen diete, bakoitzak bere esperientzia propioa eraiki behar duelakoan. Eta, horrela, zapatismoa ispilu gisa ikusteko bakarrik. Ispiluaren metaforaz adierazi nahi dute ezen ispiluan zeure burua ikusten duzun arren ez zarela zu, baina hala ere, lagun zaitzakeela ikusten nola ikusten duzun zeure burua. Horrela borroka lokal eta zehatzen alde egingo dute, batzuetan EZLNren borrokarekin bat etorriko direnak, eta beste batzuetan, talkak sor ditzaketenak. «Mapa Berri bat besterik ez dugu eskatzen, hitz guztientzat lekua duena»¹.

Hasiera batean, zapatistak ere joera leninista/maoistako gerrila-nukleo bat ziren. Abanguardiatzat jotzen zuten euren burua, herritarren gudua bideratuko zuen talde gidaritzat. Euren egitekotzat foku armatu gisa ezartzea jotzen zuten Che Guevarak erabilitako antzeko taktikekin. Garairako oso normala zen, Latinoamerikako ezker erradikalaren ezaugarri berberak zituzten, antolakuntzan, xedeetan... Horrela taldekide orok planteamendu berak konpartitzen zituzten, alegia, euren burua erakunde militar-politikotzat jotzea, masak lideratuko zituena boterea hartzeko eta, jarraian, sozialismoa ezartzeko. Guztiek, era berean, oinarri teoriko politiko berberak ere bazituzten; iraultzaren izaera sozialista, alderdi armatu abanguardistaren beharra, gatazka armatuaren zentralitatea borroka politikoaz jarraituta¹, eta abar. Eta planteamendu horiek ez ziren soilik Latinoamerikako iraultzen ezaugarri. Europako mugimenduetan ere berebiziko garrantzia hartu zuen ikuspuntu horrek, batez ere, 1917az geroztik irekitako testuinguru soziopolitiko berrian.

Izan ere, Askapen Nazionaleko Armada Zapatistan aurki dezakegun berri-tasunik handienetako bat hauxe da: betiko gerrilatik eta hasieran eurek ere hartu zuten izaeratik aldaketa sakonak gertatzea eta gainerako borroketatik desberdindu zituzten ezaugarriak bereganatzen hastea. Horrela, urte luzez komunitateekin egon eta eztabaida luzeetan aritu ondoren, komunitatean oinarrituriko demokrazian sinisten hasi ziren, komunitatea bihurtuz oinarrizko printzipio. Alternatibak komunitateetatik sortzeari eman zioten garrantzia, tradizio indigena komunaletik balioak jasoz eta Mendebalean demokrazia zuzena izenarekin eza-gutzen ditugun printzipioei eutsiz. Beraz, kontua ez da trasformazio politikorako programarik ez dutela eta, beraz, noraezean dabilzala. Euren bidea demokrazia- ren erradikalizazioa da, iraultza guztiak posible egiten dituen iraultza bat. Iraultza, modu tradizionalen iraultza. Mendeetako isolamendua hausteko hautua egingo dute indigenek, eskulan soila izatetik erabakietan parte hartzeko hautuari eutsiz.

Demokraziaren eta iraultzaren arteko lotura sendoa marrazten dute, ezker iraultzaileari demokrazia erakutsiz eta demokrazia-bilatzaileei iraultza erakutsiz.

Horrekin, beraz, iraultza bat hasi dute. Ezkertiar klasiko askok erreformistatzat ere jo dituzte, eta onarpenerako borrokatzat hartu zapatismoa. Ideologia ireki batekin, politika modernoko askapen nazionaleko mugimenduetatik edo "modernizazio" errepresibotik aldentzeko dira. 90eko hamarkadan sorturiko mugimendu honek estatua behetik aldatzea bilatuko du eta, horretarako, zentralismo demokratikoaren

1. Subcomandante Insurgente Marcos, 2003ko martxoak. "Otra geografía". *Rebeldía*. Lehen urtea, 5. zenbakia, 9. orria.

estruktura tipikotik aldenduko dira, hots, askapen nazionaleko mugimenduek eduki ohi duten eta demokraziara baino gehiago zentralismora hurbiltzen den eredutik, hian zuzen.

Demokrazia, benetako herriaren boterea eraikitzeko, harreman horizontalen beharra azpimarratzen dute behin eta berriz; horizontaltasuna, elkartasun globala, aniztasuna, herri-autonomian oinarritutako parte-hartze lokal eta herritarra... testuin-guru sozial ezberdinen aurrean tokian tokiko demokrazian jartzen dute indarra, korporazio eta populismo hitzak instituzionalismotik bereganatuz.

Eta bide beretik, horrelako gizarte bat martxan jartzeko norberarengandik hasi behar dela defendatzen dute. Beraz, EZLN barneko estrukturei so egiten badiegu, ezaugarri horiek janzten dutela ikus dezakegu: malgutasuna, errotazio-sistema... Erabakigunea komunitateak dira. Garrantzizko edozein eztabaida komunitatean argituko da, ondoren, komunitateak hautaturiko ordezkariak (errotazio bidezkoak gehienetan) komite klandestinora joango dira, komunitate guztietako iritzia uztartzeko.

Horizontaltasun horrek erabakiak hartzeko prozesua geldotzea eragiten du, dudarik gabe, baina zapatisten ustez ezinbestekoa da estruktura hau benetan amesten duten gizarterako. Garrantzia ez du eraginkoratasunak, Mendebaleko terminoetan ulertuta, hots, ahalik eta azkarren egiteak; ezpada gauzak printzipioekin bat datozen eran egiteak eta bitartean harreman-moduak aldatzeak, kultura politikoa aldatuz.

Era berean, askotan iseka egingo diete gerrila-komandante heroikoei eta liderekin jokatzeko duten paperei, nahiz eta kontraesankorra dirudien, Marcos bera tartean dela. Baina ikusi behar da Marcosen duen lidertasuna ez dela oinarritzen mugimenduaren gainean duen kontrolean, ezta duen boterean ere, baizik eta karisma eta hitz egiteko gaitasunean. Hedabideak eta miresten duten irakurleak izan dira Marcosen baitan zentratzea eragin dutenak eta ez bere lidergo-nahiak. Marcosen gain zegoen gehiegizko arreta irauli nahian, mugimendutik bertatik beste komandanteen izenak eta ospea hedatzeari ekin diote.

Buruzagitza eta estruktura inguruko kontuekin jarraituz, 2 arau zorrotz badituztela esan beharko genuke:

1. Alde batetik, jabetza-eskubideari uko egiten diote. Hots, ezin dute jabetzarik izan.
2. Eta bigarrenik, ezin dute ofizina politikorik izan.

Arauekin buruzagiek interes propio materialak izatea ekidin nahi da. Kargu batek une jakin batean ekarri ahal dizkion abantailak ez erabiltzea interes propioak asetzeko.

Matxinada politikoan aurreratuak direla aipatu izan da askotan, ezaugarri postmodernistez jantziak. Arrazoen artean, mundu-mailako aldaketa dramatikoez jabetu delako mugimendua, hots, aldaketa dramatikoa horien gaineko kontzientzia dutelako eta hautua egingo dutelako Askapen Nazionaleko Mugimenduek izan dituzten hutsune eta mugak ez errepikatzeak. Eta bestalde, Chiapasko bertako gatazka sozial eta politikoaren ondorioztat ere jotzen da, urtetan zehar indigenen

balio eta pentsaerak izandako bereizgarrietan. Horri jarraituz, beraz, matxinada Mexikoko gobernuaren politika modernistaren aurkakoa izateaz gain, kapitalismoaren beraren aurkakoa ere bada. Modernizazioaren biktima direla ohartu eta modernizazioari aurre egin nahi izan diote, ordena ekonomiko eta sozial berria eraikitzeko, betiere, kapitalismotik harago doana eta baita XX. mendeko proiektu sozialistetatik ere harago doana.

Kontzeptu nagusiak

Zapatisten aldarriak oinarrizko eskubideetara eta, era berean, esanahi osoz jantzitakoetara mugatzen dira: *lana, lurra, aterpea, elikadura, osasuna, hezkuntza, independentzia, askatasuna, demokrazia, justizia eta bakea*.

Lehen aipatu dugun legez, neoliberalismoari kritika sakonak egiten dizkiote; Munduko Bankuari, MMEri, NAFTARI, homogeneousazioari, ekologiarren degradazioari, estruktura ekonomiko, sozial eta politikoei, estatu-aparatuari, eta abar. Homogeneousazioan bertan asko zentratzen dira; izan ere, gaur egun bilatzen den berdintasuna, denok agintari bera izateko eta berorri berdinki men egiteko dugun berdintasuna dela uste dute. Zapatistek, horri dagokionez, estatua eta, batez ere, sozializazio-lan handia egiten duen hezkuntza-sistema gaitzesten dituzte, guztiok berdintzea bilatzen duten proiektuak direlakoan, zeinek bizitzen eta pentsatzen irakatsi beharrean, egungo botere-harremanen baitan “ongi” portatzen erakusten dituzten.

Hezkuntzari dagokion puntua askotan landu dute eta praktikan proiektu iraultzaile berritzaileak martxan jarri ere. Horrela, estatuko eskola publikoetara joateari uko egiteaz gain, alfabetatzeari eta herri-jakintzari ematen dieten izugarritzko garrantziaren erakusgarri izango dira eurek propioki eraiki dituzten eskolak. Eskola horietan autoritate eta diziplinaren inguruko kontuak oso desberdin ulertzeaz gain, metodologiaren aldetik ere berritasun asko ekarri dituzte. Besteak beste, Paolo Freide-ren hezkuntza-eredu alternatiboan oinarritu dira, eta dialektika eta hausnarketa izan dira oinarrizko osagaiak.

Baina, era berean, hori ez al da diruan oinarrituriko mundu bat desegitea eta beste balio eta kontzeptu batzuetan oinarritua dena eraikitzea? Ez al da ideologia bat hau ere? Eta, beraz, ideologia dominatzailea beste baten ordeztzea? Hor egongo litzateke ezberdintasun nagusia. Kontua ez da gizarte zehatz bat ezartzea. Betidanik euren iritzia eztabaidarako hitza kontsideratu dute. Aldaketa eta garapen iraunkorrean egongo den hitza. Eta beraz, ez da diskurtso monolitikoa izango. Hori guztia ondorengo hitzek demostratu ahal izango dute:

...“iluminatu” edo buruargien talde bat hiritik jaisten da zapalduak askatzeko asmoz eta hara non ohartzen garen, buruargiak baino gehiago, komunitate indigenekin alderatuz gero, itzalitako argiak garela. Zenbat denbora behar izan genuen konturatzeko entzuten ikasi behar genuela eta gero hitz egin? Ez nago ziur, ilargi askotxo pasatu dira, baina 2 urte inguru kalkulatzeko ditut nik. Hau da, 1984an gerrilla iraultzaile klasiko bat zena (masen altxamendu armatua, botere-hartzea, sozialismoa goitik ezartzea, estatuaz beteriko kaleak, pila bat heroien izenak eta martiriak... azken finean, mundu perfektu bat), 1986rako talde armatu bat zen, nagusiki indigena, arretaz entzuten zuena eta lehen hitzak esan ezinik zebilena, baina irakasle berri batekin: herri indioekin².

2. <<http://www.jornada.unam.mx>> 2005eko abenduaren 12an.

Marcosen hitz horiek argi uzten dute zapatisten bilakaera ideologikoa. Esan daiteke, beraz, euren diskurtsoa ez dutela unibertsal, absolutu, baliogarri eta guztiz bukatuzkotzat jotzen, eta horrela, arestian aipatu legez eredia izatearen ideia guztiz errefusatzeko dute, egia orokor eta bide objektiboetatik harago, subjektibotasunean oinarrituriko mundu-ikuskerara azalduz. Esperientzia eta bakoitzaren bizipenak dira oinarria.

Bestalde, hein handi batean mugimenduen gain sortzen diren teoriak ere kritikatu dituzte. Mugimendu batek bere baitan erreflexio teoriko sakonak izan behar dituela diote, baina betiere mugimendua bera, aktibitatea eta, beraz, esperientzia lehen planoan jarrita, hots, gainerako ideologiek alderatuta, esperientzian oinarritu eta teoria batez ere objektibo edota orokortzat jotzen diren horiek arbuia-tuta. Ekite hori, era berean, bere eginbehar eta printzipio etikoek gidatuko dute: «Guk sentitzen duguna hauxe da: gure eginbeharra dela zerbaitetarako eta norbaitentzat, gu barne, diren espazioak hastea, jarraitzea, laguntzea, aurkitzea eta irekitzea»³.

Ikuspegi eurozentristik, askotan, horrelako baieztapenek zentzugabeak diru-dite. Edota ez bideragarriak, antolakuntza bakoak eta kaosa besterik eragiten ez dutenak. Izan ere, erabakiak hartzeko orduan duten irizpidea ez baita legeena, zer egin behar dugun galderan oinarritua, baizik eta zer egin beharko genukeen galderan oinarritzen da, bidezkoa denarekin loturik. Pragmatikotzat har dezakete askok jarrera hau, baina eurek, printzipio jakinetan oinarritzen direlako, horrelako kalifikazioak benetazkoak ez direla diote. Beraz, garrantzia norabideak du, bideak, eta ez helburuak.

Praktika, hortaz, ez da teorikoki estrukturatuta dagoen ideia baten jarraipena, eta bizia bera, ez diskurtsoa, izango dira mugimenduaren oinarriak. Bizitzaren beraren kontuak ideien aurretik jarri, zehaztasuna abstrakzioaren gainetik.

Ohiko hiztegi iraultzailea alde batera uzten dute, besteak beste, proletalgo, sozialismo... eta beste kontzeptu batzuk *elkarrizketa*, esaterako, sartu, politizatu eta praktika iraultzaile gisa ezaugarritzen dituzte. Horrez gain, duintasunaren kontzeptu abstraktu eta esanahiz betearen behin eta berriro aipatzen dute. Termino horren erabilera ez da estatikoa edo unibertsala izango «gizabanako orok duintasunerako eskubidea du» esapidetan bezala. Esanahi gabea bihurtu daiteke era horretan, duintasuna negoziotzat jo daitekeen mundu honetan.

Duintasunarekin jarraituz, kontzeptu hau ezin da duina da/ez da dikotonomiari jarraiki ulertu. Anti-identitatearen kontzeptua litzateke, *mexikar modura duina izatea* ukatuz, esaterako. Horrela duintasuna, duintasun baten aurkako borroka litzateke. «Hemen gaude» esatea, beraz, ez da identitate baieztapen bat. Mugak haustea litzateke, banaketaren aurka mugitzea, klasifikazioaren aurka, definizioaren aurka... unitate markaturikoetatik at egotearen baieztapena litzateke. Moralaren eta politikaren arteko bereizketari desafioa, pribatuaren eta publikoaren artekoari. Hitz batean adierazita, duintasuna politikoaren eta pertsonalaren arteko banaketaren ukoa litzateke.

3. Subcomandante Insurgente Marcos, 2003ko maiatza. "El mundo: Siete pensamientos en mayo de 2003", 1. urtea, 7. zenbakia.

Ildo beretik, anti-identitarioa bada, antidefiniziozkoa izango da. Abanguardiarik klase bat ez definitzea, ez izatea helmuga bat, ez hasiera ezta amaiera ere. Ez dute beraz Iraultzarik ikusten, soilik iraultza, letra xehez.

Gaia apur bat aldatuta, esan behar da EZLNk ekonomia-aldarriak indigenak aintzat harturik eta Chiapaseko beharretara egokituak egin dituela, gizarte zibilean zentratuak. Horra mugatu dira haien aldarriak. Benetako demokraziaren alde mugitzeko gizarte zibila deitu dute, aldaketarako subjektua gizarte zibila da. Eta jendea ez da izanen subjektu, aktore baizik. Estatuarekiko lotura gabeko taldeetat definitua eta “direkzio falta” duena, hots, xede bakar batek definitzen ez duena. 1985eko lurrikaren ondorioak izan daitezke pentsaera hori eragin dutenak. Izan ere, une hartan estatua ez zen gai izan erantzuteko eta herritarrek euren kabuz arrakas-tatsu antolatu ziren, eurentzat beharrezkoak ziren arazoei aurre egiteko.

Gizarte zibila izango da, beraz, trasformazio demokratikoaren gidaria. Ez, beraz, klase bat, zeren klaseak ere proiektu bat eraikitzeke sortu diren entitateak direla esaten baitute, hots, sailkapenak. Ideia hauen adibide gobernuarekin izan zituzten elkarriketak jar genitzake, non hitz egiten hasi bezain laster gizarteari deia zabaldu zioten eztabaidatzen ziren gaien inguruan erabakitzeke.

Adibide horrekin ere ikus genezake, «agindu esanak beteaz» euren eslogan eta ideia garrantzitsuenetako baten aplikazioa. Demokrazia erradikalaren ezaugarritzat. «Liderrak, lideratzea eskatzen dieten legeei loturik daude».

Gizarte zibilari dagokionez, boteregabetze eta kontzientzia hartzea litzateke gakoa. Subjektu iraultzaileen papera ukatu ostean, gizarte zibila positiboki berri-zendatzen dute, harreman ekonomiko, politiko, sozial, kultural eta abarren armiarma-sarea legez eta boterea desafia dezakeen ente legez, hala nola bazterturik dagoen gehiengo horrek parte hartuz. Politika ezkertiar populistek eman ohi dieten “masen” konstrukzio negatiboarekin hausten da era berean. Dei bat egingo diete eta ez “gizarte zibil global alai eta erromantizismoz” bete baterako, baizik eta aldaketarako mugimendu demokratiko bat sortzeko: proiektu sozial ezberdinekin eta proposamen demokratikoen artikulazioarekin aurrera egingo duena.

Ikusi dezakegunez, justizia sozial, demokrazia eta askatasunaren terminoei balio ezberdindua ematen diete. Boteretik bazterturiko, lokalki eraikitako eta inperialismoak eragindako homogeneizazioari mendeetan eutsi izanaren ondoriozko praxitik dator esanahia.

Justiziak ez luke zigorrik eza esan nahiko, baizik eta bakoitzari bueltatzea merezi duena. Askatasuna ez da bakoitzak nahi duena egiteko gaitasuna, baizik eta nahi duzun bidea aukeratzeko ahalmena. Demokrazia ez litzateke izango guztiak berdin pentsatzea, baizik eta pentsamolde guztiek akordioetara iritsi ahal izatea. Horrela, iraultza bera ere ez da izango aktibitate konkretu bat, ezta iraultza armatu edo ez armatu bat. Baizik eta borroka ezberdinen, metodo ezberdinak erabiliz, forma sozial desberdinekin eta konpromiso zein parte-hartze maila desberdinen ondoriozko borroka. Bide beretik, emaitza ez da izango programa bereziko alderdi baten garaipena, ezta antolakunde batena, edo antolakuntzen aliantza batena, ezpada marku demokratiko baten eraikitzea, proposamen politiko ezberdinen arteko gatatzak konpon ditzakeena. Espazio demokratiko horrek 3

zutabe izango lituzke: proiektu sozial guztiak hautatu ahal izateko eskubidea, edozein proiekturi atxikitu ahal izateko askatasuna eta proiektu oro justiziara iristeko baldintza.

Elkartasuna, bukatzeko, talde eta erakunde ezberdinek, batez ere tokian toki-koek, autonomiaz eta harreman horizontalekin garatuko duten demokrazia, justizia eta askatasuna litzateke. Eraikuntza, horien guztien sarea, alajaina.

Identitatea

Gatazkek identitate-zentzua hertsiki loturik daramaten garai honetan, beste berritasun bat agertzen digu zapatismoak, gutxiengo nazionalak eta identitate ezberdinen arteko talkek gatazka asko lehertu dituzten garai hauetan. Eta bide horretatik, autore askok aipatu dute gaur egungo gatazka gehienak identitateari loturiko liskarrak direla. Horrela, hasiera batean nazionalistatzat har genitzakeen arren, gaur egun ezingo genuke holakorik esan. 1996. urtean, Mexikok NAFTA bezelako akordioekin soberania galtzeak izugarri kezkatzen zituen eta horrela Mexikok eskubide sozialak babesteko zuen erantzukizuna behin eta berriz aldarrikatzen zuten. Baina denboraz, zapatismoak eskaintzen duen esparru zabalarekin topatuko gara. Nahiz eta zapatismoa bera aurrera eramanez dutenak hego-ekialdeko Mexikoko indigenak, hots, leku batean kokatu eta ezaugarri komunak dituzten taldeak izan eta horren inguruko aldarri berezi batzuk izan, ez dira abertzaletasunean oinarritzen. Indigena horien identitate-ezberdintasuna ikusi ahal izango dugu alde batetik, hots, egun zapatismoa osatzen dutenak hainbat talde dira; tzotzil, tzetal... euren hizkuntza, ohitura eta tradizioekin eta, hala eta guztiz ere, borroka komuna aurrera eramatea lortu dute. Bestalde, nahiz eta Mexikon kokatu eta eurak indigenak izan, borroka hau mundu osora zabaldu da eta, horrez gain, mundu guztiko baztertuen lekua aurki daiteke bertan. Ondorengo hitz hauek ere argi utziko dute hori, hots, ez dela leku zein identitate bati loturiko borroka, baizik eta guztien aldarrikapenek lekua eduki dezaketen borroka bat.

Marcos San Frantziskoko gay bat da, Hegoafrikako beltz bat, Europako okzidental bat, San Isidroko txikano bat, Espainiako anarkista bat, Israeleko palestino bat, San Kristobalgo indigena bat, Nezako banda bateko kidea, Alemaniako judu bat, alderdi politiko bateko feminista... beste hitz batzuetan, Marcos munduko gizaki bat da. Marcos onartzen ez duena, zapalduta dagoena, erresistitzen ari den gutxiengo esplotatua da eta "Nahikoa da!" dio.

Bestalde, erlijioaren gaiari ere aipamen bat egin nahiko nioke. Erlijioa guztiz sustraituta ikus dezakegu zapatisten artean, euren identitateko parte bat legez. Baina hori kideen afera pribatutzat dute. Zapatistak ez dira kristauak, kideen artean erlijio ezberdinetako atxikimenduak onartzen dituztelako. Horrela, bada, ez da zapatista izatearekin bat etorriko eta kristautasunaren ezaugarriek ez dute euren pentsamendua zuzen jantziko. Baina hala eta guztiz ere, zapatista gehienak kristauak dira eta praktika elizkoiak dituzte euren eguneroko bizitzan; beraz, kideen artean, kristautasuna norberaren identitatearen baitako ezaugarri garrantzitsua da. Esan beharra dago, hori horrela dela neurri batean eragin handia izan duelako elizak Latinoamerikan kolonizazio-garaietan egindako lanak eta, geroago, txiro eta indigenei eskainitako babesak. Ezaugarri hori Hego Amerikako mugimendu gehientsuenen parte dugu.

Indarraren erabilera

Lehenago aipatu bezela, hasiera batean armekin altxatu ziren zapatistak eta, beraz, armen erabilera bai hasierako une haietan zein aurrerago ere alboratu ez duten kontu bat izan da. Hots, beharrezko eta ezinbesteko den uneetan armei heltzea ez dute gaizki ikusten.

Praktikari begiratzen badiogu, ordea, ikus genezake nola armen erabilera oso txikia izan den. Hots, fronte armatu bat osatu arren eta haien aurkako erasoetan indarkeria erabili arren, oso gutxitan jo dute armekin erantzutera. Horrela, bada, esan genezake armada izendatu arren, armadaz ulertzen dugunaren gakoetatik urruntzen dela.

Adierazgarria da, eta aintzat hartzekoa ere, baieztatzea armek ez dituztela erradikal egiten, baizik eta politika erradikal berriak proposatzeak. Erradikalak direla egungo *zientzia politiko moderno* parametroetan ez direlako sartzen. Horrek, era berean, erradikal hitzaren inguruan argia ematen digu.

Bide horretatik, askotan esan duten bezela, «gure hitza da gure arma» esaldiak laburtuko luke mugimendu honen izatea gai honekiko. Beraz, armekin ez dute barrera gehiagorik sortu nahi izan, eta gerra parametro politiko-ideologikoan kokatu dute: «Gerra ez da arma eta gizon armatuen gauza, politikarena baizik».

Emakumea

Emakumearen papera zapatismoan oso garrantzitsutzat jo dezakegu. Gainerako iraultzekin alderatuta, eta batez ere ingurukoekin alderatuta (sandinismoa, Kuba...) emakumeen presentzia eta parte-hartze izugarriaz hitz egin dezakegu.

Zapatistek eurek ere askotan esan duten bezala, iraultza ez zen 1994an hasi, baizik eta urte bat lehenago, emakumeek euren legea egin zutenean. Muturreko egoeretan bizi izanik (lanik gabe, jatekorik gabe...) gizon askok alkoholera jotzen zuten eta, ondorioz, haserreak eta indarkeriaren erabilera asko igo ziren. Askok eta asko ziren indarkeria-egoera hori jaso behar zuten emakumeak, eta ondorioz, alkoholaren debekua ezinbestekoa zela aldarrikatu zuten. Onartu egin zen. Gizonezko zapatistek ere, emakumeek eskaturik, onartu egin zuten bizikidetzaren hobe baten izenean. Horrekin ikus genezake, borrokaren orokortasunean paper garrantzitsua izateaz gain (gainera erakundeko edozein postutan —komandante aski ezagunak haien artean Esther, Rita... hots, rango militarri dagokionez—), mugimenduaren barruan ere esparru propioak eta borroka propioak eraman dituztela aurrera. Izan ere, borroka askotan hartu dute parte, baina ez dago argi ea emakumeen partehartzea emakumeen garrantzia eta berezitasuna aintzat hartzeko izan den ala sinbolismo hutsa, zenbaki kontua ala militantzia gehiagoren beharra. Eta zapatismoari dagokionez, emakumeen parte-hartzearen garrantzia haien ikusmolde eta ideiak ere barneratuta izateari loturik agertzen da.

Adibide zehatzekin adieraztearren, lehenengo deklarazioan bertan ikus daiteke nola emakumeen ahotsa presente egon zen aldarri propioekin, eta bestalde, *emakumeen legeak* berak eragindako lehen barne-iraultzari begira geniezaioke.

Lege horren sorrera komunitateetako emakumeen arteko eztabaidak ekarri zituen. Taldetxo txiki bat bildu eta komunitatez komunitate joan zen irtetzen ziren puntuak eztabaidatzera, eta lege horrek hautsi zituen ordura arteko emakumeen zapalkuntzatzat jotzen ziren tradizioak. Kontuan izan behar da, orobat, 1993ko indigena mexikarrei zuzenduriko legeak zirela eta agian gure artean duda izpirik sortzen ez duten kontuak izan arren, aldaketa sakona planteatzen zutela gizarte hartan. Honako 10 puntu hauek osatzen dute:

1. Iraultzaren borrokan parte hartzeko eskubidea eta norberaren kontzientzia eta gaitasunaren araberako postua izatea, arraza, kolorea, afiliazio politikoa eta sineskerak kontuan hartu barik.
2. Lan egin eta soldata jasotzeko eskubidea. Emakumeen artean antolatutako kooperatibek asko lagundu dute eskubide hau bermatzen. Besteak beste, emakumeek euren diru-sarrerara propioak izatea ahalbidetu dutelako eta, lan-muduan lortutako autonomiagatik.
3. Eduki beharreko ume kopurua norberak hautatzeko eskubidea.
4. Komunitateko aferetan parte hartu eta demokrazia eta askatasunez hautatuak izateko eskubidea. Horrez gain, autoritate-gune horietan errespetatuak izateko bultzada.
5. Oinarrizko osasun-zerbitzu eta elikagaiak izateko eskubidea.
6. Hezkuntza-eskubidea.
7. Ezkontzerakoan, gurako gizona hautatzeko eskubidea.
8. Tratu txar fisiko edo psikologikoak eragiten dizkieten aurkako zigorra. Delitutzat hartuz.
9. Horrela erabakiz gero, liderrak zein rango militarrekoak izateko eskubidea. (Titulua, beraz, mendietan izandako esperientziak, lan gogorra egiteko gaitasunak, nork bere kargak eramateko trebetasunak... baldintzatzen dute. Eta horrela, karguak igotzen eta erantzukizunak hartzen joan ahala, baita beste jendea lideratu ere. Horrekin guztiarekin, hierarkia bertikal baten aurrean gaudela antzeman daiteke. Baina nahiz eta horrelako antolakun-dea izan, gero funtzionatzeko duten eran ohartu beharko gara hori esateko).
10. Lege eta erregulazio iraultzaileko eskubide eta obligazio guztien jabe izatea.

Horrek gizonezkoen izugarritzko talka sortu zien arren, gizonezkoen eskubide-tzat hartzen zituzten kontu asko mugatzeagatik hein handi batean, azkenean onartuak izan ziren eta horrekin batera kuestionatzen hasi ere, patriarkatua eta gizonezkoen boterea eta, beraz, emakumeen subordinazio sistematikoa. Genero-harremana, hortaz, azaleratzen hasi zen eta subjektibismo indigena femeninoari ateak ireki zizkion, gaurdaino iraun duena.

Indigenismoaren barruan ere berritasun asko ekarri ditu, adibidez, ama noiz bihurtu erabakitzeko kontuak eta, beraz, antisorgailuen erabileraren ulerkerak, landen kontrola, eta familia-estrukturari dagokionez, umeen hezkuntza. Horrez gain, sexualitatearen eta amatasunaren arteko banaketa ere argiago ikus daiteke

orain, sexualitatearen askatasunaren bidean. Ohitura eta tradizioek ezin diotela inori min eman jarri dute mahai gainean premisatzat.

Eginkizunei dagokienez, guztien artean dena banatzearen politika sustatzen dute eta erabakitzekeo prozesua ere berdina izango litzateke emakume zein gizonen ikuspuntutik, EZLN beraren izaeran ere adostasuna lortzearen oinarria baitago.

Horrela, emakumeen ikuspuntutik ere bizi-alternatiba bat ari da bihurtzen zapatismoa. Neskatxa gehienek hirira joateko aukera besterik ez dute komunitateetan, zerbitzari-lanak egitera edo bestela komunitatean geratzea gizonaren zerbitzura. Hori dela eta, nahiago izaten dute zapatista bihurtu, eta euren komunitate edo udalerrri askeetara bizitzera joan, non ez duten ez betebeharrak sexualik izanen, ezta ezkontzeko derrigortasunik ere.

Halarik ere, ezin genezake esan gabe utzi oraindik ere izugarrizko hutsunea dagoela matxinatuen eta komunitateen (zapatisten euskarri diren oinarrien) artean. Gune horietan oraindik sexuak baldintzatzen ditu agintea, lan-banaketa, sexualitatea ulertzeko era...

Emakumeen antolakuntza horretan Chiapaseko emakume nekazariek izan duten antolatzekeo eta borrokatzekeo tradizio handia kontuan hartzekoa da; osasun-zerbitzuen inguruan, biolentzia sexualari dagokionez, artisautzan edota giza eskubide eta eskubide zibilen inguruan. Pixkanaka espazioa lortzen joan dira aldarri propioak egitekeo eta emakumeen taldeak han-hemen aurki daitezke.

Sinbologia

Sinboloen erabilera zabala egiten dutela esan daiteke. Arreta bereziz landu dute gai hau, alde batetik komunikatzeko eta ideia asko adieraztekeo eta, bestetik, arreta erakartzeko. Eta esan beharra dago eraginkorra izan dela.

Egungo gizarteetan, non informazio-uholde batean bizi garen eta pertsonon arreta bereganatzea zail bihurtzen ari den, sinboloek eta irudi deigarriek izugarrizko garrantzia hartu dute. Eta zapatistek, gai honekiko ere, euren lekua hartzen jakin dute.

Horrela, bada, garrantzitsuentzat jo dezakegun ikurra buruestalkia litzateke. Jendearen arreta bereganatzeari dagokionez, eduki du etekinik. Lotura bat sortu dute esanahiaren eta sinbologiaren artean eta ikur hau zapatismoarekin lotzea lortu. Estetikoki ere bere lana egin du, hots, jendearen irrika sortu du estalki horien atzean daudenak nolakoak ote diren jakitekeo, imajinatzerak bultzatuz... eta bestalde, jende askorentzat erakargarriak gerta ez daitezkeen pertsonenganako arreta lortu dute (zaila bihur daitekeena irudiak gehiegizko garrantzia duen gizarte honetan). Misterioak lagunduta (nor izango da? nolakoa?) arreta norbereganatzea lortu dute.

Baina garrantzia duena hau da: esanahiz jantziriko sinbologia bat dugula estalkiarena. Borroka anonimoa adierazi nahi du, heroirik gabekoa eta guztiak zapatistak eta berdinak dituen (esaterako, Marcosek berak oihartzun handia izan arren, ez dakigu ezer bere identitateaz —espekulazioak salbu—, izena bera ere ez baita benetakoa). Identitate gabeko pertsonen adierazpena dira, borrokatzen duen

taldearena. Guztiok gara zapatistak, guztiok berdinak, guztiok borrokalariai. Eta isiltasunean, ezkutuan borrokan ari diren guztiak dira zapatistak.

Bestalde, aurpegia estaltze horrekin muturreko munduak adierazi nahi dira; erabakitze-guneetatik at dagoen aurpegi gabeko gehiengoa, eta mozorroturiko estatu modernizatzaile eta boteredunen multzo txiki globala.

Horrez gain, erabilitako gainerako irudiek eta deiturek ere esanahi berezia dute. *Caracolak* esaterako, euren erresistentziako esparru libreak, non euren "gobernu" (*gobernu ona* deitua, ez ona delako, baizik eta gainerako gobernu txarretatik bereizteko), eskola, *ongi etorriko komitea* eta antolatze guneak, autogestionaturiko dendak, eritetxeak... dauden, ez dira *caracol* deitzen arrazoirik gabe, munduko azken txokotik mundu guztira irekitako oihartzuna esan nahi dute *Munduaren aurreko erdiguneko bihotza* deitua. Edota *caracol* horien izenak, *Oventic, 16 de Febrero...* guztiak zentzu berezi batekin emanak. Edota *obeditzen agindu* bezalako espresio esanguratsuak edo kanpaina bakoitzeko kartel, irudi eta mezuak. Horiek guztiek nortasun batekin janzteaz gain, irudi propioa eraiki eta ezaugarri propioak eman dizkiote euren borrokari.

Era berean, sinbolismo horretan ere sar genitzake historian ahaztuta ez gelditzeko eta jarraipen bat emateko Emiliano Zapata eta zapatista izenen arteko lokarria, edota Pantxo Villa eta gainerakoei eginiko erreferentziak. Zapata zenaren erabileran zentratuz, izen eta irudietan erabilia, hasieran aipaturiko ezaugarriez gain, hots, teknokraten oposizio historikoa iraultzei, matxinadaren esanahia ere berreskuratu nahi izan dute. Indigenen matxinadak historikoki nazio osoak konpartituak izan dituela gogoraraziz, bi Mexiko deituen elkartzearen islada legez (hirtar eta landakoena, indigena eta landinoena...).

Komunikabideen erabilera

Puntu honek berritasun asko ekarri dizkio borrokari. John Holloway eta Eloina Pelaez, besteak beste, *garai elektronikoko lehen iraultza* legez definitzera iritsi dira. Hasieratik arreta berezia jarri zioten komunikazioaren esparruari. Lehen uneetako helburuen artean aurki genezake Mexikori eta munduari mexikarren bizi-baldintza miserableez, batez ere, indigenenez, informatzeko xedea.

Gainerako oposizio-mugimenduetan erreminta hau osagarritzat eta ez-politikotzat hartu den arren, zapatistek lehentasuneko tresna politiko gisa erabili dute arrakastaz eta informazioaren garai honetan gainerakooi ulertarazi digute teknologiak gure onerako erabil ditzakegula, gure forma emanaz, berrien gaineko inizatiba hartzen badugu. Hedabideak aktibaziorako bitarteko lekutzat hartu dituzte.

Interneti emandako garrantziaren adierazgarri, esate baterako, 1996an egindako *encuentroa* dugu, Humanitarean aldeko eta Neoliberalismoaren aurkako lehenengo topaketa intergalaktiko izenaz deitua. Interneten erabilera potentziatu dute, besteak beste, bat-batekotasuna, hierarkia gutxiagoko eta antolatze era irekiagoak onartzen dituelako. Informazio-fluxua noranzko bikoa eginez eta harreman horren interakzioa aprobeztatuz euren esturturekin bat datorren molde hau erabili dute. Nahiz eta korporazio eta instituzio menderatzaileen interesek agindu

bertan, erabilera egokia eman ahal zaio. Topaketa haietan kategoria zabal asko eztabaidatu zituzten, politika, ekonomia, nortasuna... betiere ikuspuntu zabaletik.

Hala ere, ez litzateke egokia izango tresna honen goraipamen gehiegizkoa egitea, besteak beste, atzean traba asko dituelako. Esaterako, erabiltzaile gehienak zuriak, klase ertaineko profesionalak eta iparraldekoak baitira edota gizabanako soilean kontzentratzen dira. Internetera sartzeko askoren zailtasunak hierarkiak sor ditzake konektatuta daudenen eta ez daudenen artean, esklusioak.

Komunikazio-proiektuaren barnean, Internet eta hedabide nagusietan eragina izan duten arren, bestelako bitarteko ugari ere aurki genitzake. Besteak beste, hileroko aldizkariak, atera dituzten DVD edota filmak eta *Insurgente* deritzoten irratia. Azken horrek, barneko, hots, komunitateen arteko informazio-fluxua asko lagundu du, nahiz eta, noski, alde bakarrekoa izan eta beraz nahiko mugatuta egon. Baina euren arteko gertakizunen berri emateko, informazioaren bat-batekotasuna bermatzeko eta sare bat osatzeko bitarteko polita izan da. Batez ere, kontuan hartzen badugu irratira atxikitzeko erraztasunak ugariagoak direla liburuak edo aldizkariak irakurtzekoak edota DVD eta bideoak ikustekoak baino. Esan genezake bitarteko horiek bai nazioarteko bai Mexikoko baita Chiapaseko gizarte zibilari begira daudela gehiago komunitateko kideei begira baino. Euren ahotik informatzearen hautua emaitza horrekin ase dute.

Gaian sartuta, ezin aipatu gabe utzi komunikazio parte-hartzailearen esparruan eginikoak. 1994-95-96 urteen bueltan, hainbat apaiz (askapenaren teologia jorratzen zutenak) ohartu ziren nola informatzaile ofizialek ez zuten egia esaten komunitateetako kontuei zegokienez, eta hori haserrea sortzen ari zela indigenen artean. Horrela, ezinbestekotzat jo zuten komunikatzearen eginkizuna. 1996an kaseteen erabilera bultzatzen hasi ziren beraz, baina era parte-hartzaile batean, komunitateak eurak informatzaile bihurtuz. Informazio-ziklo bat osatzen hasi ziren, *promotore* direlakoak komunitatean bi hilabete eman ondoren eta hango esanak jaso ondoren, tailerrera joaten ziren informazio hori ordenatu eta antolatzerara. Ondoren, kasete berriekin komunitatera itzultzen ziren eta hango batzarretan entzunketa sozializatuak egiten ziren. Eztabaidatik jasoak apuntatu eta berriz tailerrera bueltatzen ziren bi hilabete ostean beste kasete bat egiteko asmoz. Horrekin komunikazioa zentzu zabalean ulertzea lortu dute, informazioaren fluxua sortuz elkarren berri izateko eta, azken finean, mundua ulertu ahal izateko.

Bestalde, Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) eta hedabide independentee-tako kazetariak ere garrantzia handia dute nazioarteari begira. Izan ere, hasierako unetik, arreta berezia jarri zuten mugimendu zapatistan. Besteak beste, indigenen aniztasunagatik, esaterako, oso leku erakargarria izan delako Chiapas. GKE eta karitatea egiten duten taldeak behin aipaturik, esan nahiko nuke zapatistek euren beharren arabera ireki dizkietela ateak laguntzei. Hots, euren artean pentsatu zer behar duten eta hori eskaintzeko prest daudenekin bakarrik lan eginez. Erabaki hori hartzeko hautuaren zergatian, GKEk askotan jokatu duten paper eurozentrista legoke. Lagundu beharraren eta karitatea egitearen ideian murgilduta, bertakoek benetan dituzten beharren araberrako gaiak bidali beharrean, haien ustez eurak dituzten beharrak asetzerara bideratu dira laguntzak. Hori guztia ondo antolatzen ikasi dute zapatistek, eurek beharrezkotzat jotzen zituzten kontuei bakarrik ateak

irekiz. Horrek, besteak beste, euren nortasuna mantentzeari begira ere garrantzi handia izan du.

Komunikazioaren esparruan, San Andreseko negoziatioak izan eta gero isiltasuna egon zen zapatisten artean, maien jokatzeko era tradizioanalaren adierazgarri gisa. Baina ondorengo adierazpenetan esan duten legez, isiltasun hori ez zen ulertua izan eta nahasketarako besterik ez zuen balio izan. Hortik aurrera, beraz, beti informatzen egotearen beharra plazaratu zuten.

Horrez gain, hizkuntzaren erabilera ere aipatu beharko genuke. Kontzeptuen erabilera ezberdina egiteaz gain, diskurtsoen forma ere guztiz bestelakoa da. Herriko hizkuntzan mintzatzen dira eta ipuinak, metaforak, ironia, kontakizunak, umorea... eta horrelako errekurtso literarioak erabiltzen dituzte mezuak janzteko.

Komunikazioaren arrakasta horrek izugarritzko garrantzia izan du munduaren aurrean euren burua ezagutarazteko eta, batez ere, dituzten ideiak aurrera eraman ahal izateko. Izan ere, esperientzian eta esperientziaz oinarrituriko ibilbide batek ezinbestean behar baititu bitarteko sendoak irekitzen diren bideen inguruko zergatiak azaldu ahal izateko. Bide horretan, ideologia definitua izateak talde askori lagundu die euren jarrerak ulertu ahal izateko. *Status quo*aren aldeko hedabideek egin dezaketean itxuraldaketa aurrean, gizartearengan konfiantza eta ulermena mantendu ahal izateko. Horregatik, borroka honek ideologia definitu eta zehatz horren ausentzia izanik, komunikatzeko ekintza ezinbestean bere gain hartu behar izan du une oro.

Amaiera

Idazlanean argudiatu dudana bezala, zapatismoak ezkerreko mugimenduari izugarritzko aportazio ideologikoa egin diola ikusi dugu. Termino berri asko mahai gainean jartzeaz gain, nonbait ezkutuan geratu zirenei ere arreta berria jarri baitie. Horrela, bada, ideologia handi baten aurrean aurkitzen garela esan beharrean, praktika berritzaile baten aurrean gaudela esango nuke. Hots, marko teorikoen inguruko eztabaidak alde batera utzi eta esperientzia propioz bide berriak egin daitezkeela ikusi nahi duten gizon eta emakumeen aurrean. Promes handiak eta helburu handiagoak alde batera utzi eta ekinez, biderik gabeko basamortuan lehen pausoak eman dituztenak. Iraultzari iraultza; formetan, harremanetan, metodologian... ulerkeran.

Eta agian askok esango duten bezala... inora ez doazen bideak ari dira egiten, helmuga gabekoak, ilusio eta uste onetan gehiegi sinisten dutela. Horren aurrean, esango nuke nik, nahiz eta biharko egunean mugimendu hau zer izango den ez dakigun, gaur eguneraino behintzat umiliatuta, baztertuta, zapalduta, txokorik gabe, babesik gabe... bizi ziren milaka eta milaka indigenei bizitzeko modu alai bat eskaini diela. Heriotza besterik ikusten ez zutenei bizia eman die. Alternatiba izan da ehundaka pertsonentzat. Euren bizia bera, alternatiba eginez.

Azkenik, amaitzeko, aipatu nahiko nuke egungo testuinguru globalean eta globalizazioaren aurkako mugimenduan jokatu duen papera, bai mugimendu horretan eduki dezakeen erreferentzialtasunari begira, eta batez ere, globalizazioak eskaintzen digun mundu mailako parametroen aurrean tokian tokiko indarrez

haz daitekeen alternatiba bezela. Munduko txoko orotako gizakiok komunean izan dezakegun zapalkuntzari txapela jarri diote, ikuspegi globala barneratu eta inor bazterturik utziko ez duen borroka bat hasi, hau da, «mundu asko sartzen diren mundu bat». Globalizazioaren aurkako borroka unibertsalaren markoa plazaratu dute, hain zuzen. Etnia guztiei, esplotazio eta bazterketa molde guztien kontrako ekimenei eta lekuan lekuko aldarriei lekua egin diete, eta gainerako aldarri globalen barruan norberarenak sortu. Hots, *pentsatu globalki ekin lokalki* ideia praktikan jarri dute.

Bibliografia

- Castells, M. (1997) *Los zapatistas de México: la primera guerrilla informacional. El poder de la identidad*, 2. lib., Alianza editorial, Madri, 95-104.
- Cuadra, S. eta Zabala, B. (1997): "La marcha zapatista y la fundación del FZLN", *Viento Sur*, **35**, México, 13-28.
- Duncan, E. eta Simonelli, J. M. (2005): *Uprising of hope: sharing the Zapatista journey to alternative development*, Rowman Altamira.
- Higgins, N. P. (2004): *Understanding the Chiapas rebellion: modernist visions and the invisible Indian*, University of Texas Press.
- Holloway, J. eta Peláez, E. (1998): *Zapatista!: reinventing revolution in Mexico*, Pluto Press, London.
- Llyr ap Gareth, O. (2005): *Was the Zapatist uprising "The first postmodern revolution"? : resistance in an age of 'postmodernity'*, University of Wales.
- Burbach, R. (2001): *Globalization and postmodern politics : from Zapatistas to high-tech robber barons*, Pluto Press, London.
- Kymlicka, Will (2001): *Politics in the vernacular : nationalism, multiculturalism, and citizenship*, Oxford University Press, Oxford.
- Foran, J. (2003): *The Future of revolutions : rethinking radical change in the age of globalization*, Zed Books, London.
- Muñoz Ramírez, G. (2004): *EZLN: 20 y 10 Ecos de una campaña*. S. Rodríguez. *Rebeldía. Artez*, **18**, 3-8.
- López Monjardín, A. (2004): *Los focos y las redes: ¿zapatismo intercontinental?*. S. Rodríguez, *Rebeldía. Artez*, **17**, 10-16.
- Rodríguez, S. (1996): "La esperanza se organiza", *Viento Sur*, **25**, México, 17-22.
- Rodríguez Lascano, S. (2004): La llama ardiente del poder. S. Rodríguez. *Rebeldía. Artez*. Número 17, 3-9.
- www.ezln.org. 2005eko abendua
- <http://www.jornada.unam.mx>. 2005eko abendua

